

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Udaberria

Nork ez du maite udaberria? Udaberria urtero pinpirin ageri zaigun neskatila da. Gure ingurunea apaintzen duen soineko berri koloretsua. Milaka abestitan ernetzen den sinfonia alai. Lurra zomorro kontaezinez biziberritzen duen mago jostalaria. Loretan eta hostotan leheretzen den eztanda zerutiarra.

Udaberriak pizten dio itxaropena hotzaren atzaparretan hiltzeko beldurrez negua pasatu duen agureari. Udaberriak ernaltzen dio bizipoza birloben zaratak eta txilioak amesten dituen birramonari. Udaberriak jartzen dio odola borborka maitemintze atarian dagoen gazteari. Udaberriak bihurtzen ditu nekazekin haurren gihar, hauspo eta ezterriak.

Udaberria emazte gazte bat da, bere argitasuna eta beroa doan eskaintzen diguna, bere edertasuna nonahi barreiatzen duena, bere emankortasuna milioika espezieren ume jaiotzeren gauzaten duena. Eskuzabala da, eguzkiaren printzak hain modu oparoan eskaintzen dizkigulako. Bihotz onekoa, neguko izotzen ondoren epeltasuna oparitzen digulako. Aberatsa, baratzeak eta soroak barazki eta uzta berriz hornitzen dituelako. Sentsuala, gure gorputzak pixkana-pixkana biluzten dituelako.

Eta, horrez gain, udaberria itxaropenaren gordeleku amaiezina da. Udaberriak



DANI BLANCO

esnatzen gaitu, pizten, alaitzen eta baikorra bihurtzen. Udaberriak mailegatzen digu kukuaren kantu alai, ordaintan ezer eskatu gabe. Halaber, gure belarrien gozagarri hedatzen ditu txorien txorrotzio alaiak eta arkume eta antxumeen beee hunkigarriak. Gure harridurarako begien aurrean jartzen dizkigu tximeleta koloretsuen eta saguzar urdurien akrobazia eta biribilketak, eta matxinsaltoen jauzi olinpikoak, inurri estraperlisten garraio etengabeak, kakalardo adardunen arraseko hegaldiak, eta gau ilunetan, ipurtargien argi epela eta hontzaren ulu zirraragarria.

Eta guk zer eskainiko diogu udaberriari? Aro berri bat non denok elkarren senideago izango garen eta krisiak gizatiarrago eta solidarioago egingo gaituen..? Eszenatoki berri bat non, denok zatiketarik alde batera utziz, elkarbizitza lasaigo eta zoriontsuago bat elkarri opa izango diogun? Komunikazio giro jatorrago bat non gure euskara gaixoa, haur argal eta eria denez, suspertzeko eta gaztelaniaren parean jartzeko ahaleginak egingo ditugun?

Beldur naiz, beti bezala, ez ote garen gure zitalkerietan eta setakerietan eroriko. Hala ere, zilegi bekit udaberriarekin eta gure onberatasunarekin amets egitea. Ailedi izan egia amets hau! ■

« Beldur naiz, beti bezala, ez ote garen gure zitalkerietan eta setakerietan eroriko.

» Hala ere, zilegi bekit udaberriarekin eta gure onberatasunarekin amets egitea

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Aukeraren zain zauden, eta iritsi zaie tenorea. Euskal zelaia zuten begiz joa eta ezker abertzalea aitzaki. Eginekin egin zuten aproba. Kazeta itxi, irratiak berdin, eta ustezko arduradunak preso eraman zituzten. Ez zuten prezio berezirik ordaindu behar izan eta harrotu egin zitzaizkigun. Ondoren *Euskaldunon Egunkaria*. Egimekoekin bezalaxe, itxi eta gogoak agindu eran atxilotu zituzten zirenak, izandakoak eta hura sortzen ahaleginetan ibilitako zenbait. Torturatu zituzten herri honetako atxilotu gehienetan. Manifestazio erraldoi batek ez zituen kikildu eta bere hartan jarraitu zuten gibelka egin gabe. PPren garaia. Aznarren dema.

Aspaldiko

PSOE etorri zen. Bazirudien Zapaterok aire berriak ekarriko zizkigula. Bazirudien Aznarrekin alderatuta lasaigarria izango zitzaigula. Oker genbiltzan. Ez zuen lotsa izpirik izan Nafarroan eskuindarrenekin gobernatzeko eta euskal usaina zuen ororen aurka estrategia suntsitzailea martxan ezartzeko. Labortegia. Emaitzak ikusirik, EAEn esportatzea erabaki du. Lehen zantzuak agerian dira. Gaztelera defenditu behar omen du nonahi, EAEn zapalduta dagoen gaztelera. Irakaskuntzatik hasi behar omen du. Erne jaunandereak, doan ateratzen bazaio, erretzaileen antzera ibiliko gaitu euskaldunak, aurki euskaraz pribatuan soilik egiteko aukeran emango baikaitu. ■